



# TXIKITTO!

2022ko martxoa 207. zenbakia

## ARATOSTEAK, DATORREN URTERA ARTE!



# AURKIBIDEA

TXISTEAK .....	3	SUKAL-SALTSAN.....	14
IKASLEEKIN.....	4-5	DENBORAPASAK.....	15-16
BERRIKETAN		LEHIAKETA .....	17
IKASTETXEETAKO.....	6-7	ZER IRAKURRI	
BERRIAK		BITXIKERIAK.....	18
ARATOSTEAK.....	8-11	IPUINA .....	19
AITXITXA-AMAMEKIN		ZU BAI MARGOLARI...	20
BERBETAN .....	12-13		



**Argitaratzailea**  
“...eta kitto!” Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776

**Erredakzio kontseilua**  
Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

**Administrazioa**  
Marisol Uriarte

**Erredakzioa**  
Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar

**Maketazioa**  
Ana Aizpurua

**Ikus-entzunezkoak**  
Yanire Sagredo

**Azaleko argazkia**  
Amaña ikastetxea

**Copyright-a**  
Txikitto!

**Lege-gordailua**  
SS-1111/96





- Jaimito, eskolatik zer da gehien gustatzen zaizuna?
- Itxita ikustea, andereño!!!



- Zergatik astronautak ez dira ezertaz enteratzen?
- Ilargian daudelako!!!

Ume batek bere aitaxori:

- Aita, aita, utziko al didazu telebista ikusten?
- Bai, seme!!! Baina piztu ez...



- Ama, ama, eskolan despistatua naizela esaten didate!!!
- Aizu, ume! Joan zaitez zure amarengana!!!

Irakasleak jaimitori:

- Ea jaimito, esaidazu: nola banatu ditzakegu 3 patata 6 umeren artean?
- Oso erraz! Purea egiten!!!





# Ikerlari finak ditu Arrateko Andra Mari ikastetxeak



Arrateko Andra Marin izan gara hilabete honetan, bertan egin duten proiektu bati buruz hitz egiten. 4. mailako ikasleek inkestak bat nola egiten den ikasi dute, baina ez hori bakarrik. Prozesu guztia egin dute eurek, galderak pentsatzetik azken ondorioaraino iritsi arte. Nahikari, Jadiga, Malen, Saqlain, Simon eta Davidekin elkartu gara eta oso ondo azaldu digute zer eratako lana egiten duten.

**BIDEOA**





**- Azalduiguzue zer dan egin duzuen.**

Matematika arloan egin dugun esperientzia txiki baten berri emango dizuegu, inkesta bat nola egiten den, hain zuzen. Lehenengo eta behin inkesta zeri buruzkoa izango zen adostu genuen.

**- Eta zein izan zen inkesta egin zenuten galdera?**

Ea zein den ikasleen kirol gustukuena.

**- Hortik aurrera zer egin zenuten?**

Ondoren erabaki batzuk hartu behar izan genituen, lana ahalik eta ondoen antolatzeko. Inkesta lehen hezkuntzako gela guztietan egitea erabaki genuen. Gela bakoitzera nor joango zen ere prestatu genuen. Geletara azalpen txiki batekin joan ginen, hau da, nortzuk ginen, zein zen gure bisitaren helburua eta zer eskatu nahi genien.

**- Eta zer material banatu zenuten ikasleen artean?**

Kirolen zerrenda bat prestatu genuen ikasle bakoitzak aukeratu zezan zein den bere kirol gustukuena. Gero taula bat ere prestatu genuen bertan erantzunak jasotzeko.

**- Eta behin geletan materiala banatu eta gero, zer?**

Ba, gelaz gelako inkesta burutu ondoren gelara itzuli ginen erantzunak jasota. Taula osatu genuen eta ondorioak aztertu. Jasotako datuak zenbatu eta boto gehien jaso zituen kirola zein izan zen ikusi genuen.

**- Eta zein izan zen?**

Futbola. Eta atzetik gimnasia erritmikoa eta saskibaloia.

**- Zelako esperientzia izan da?**

Oso polita eta dibertigarria. Asko ikasi dugu.

**DAVID LINARES,  
9 URTE**



**JADIGA MOHAMED,  
9 URTE**



**MALEN ROMAN,  
9 URTE**



**NAHIKARI  
HERNANDEZ,  
9 URTE**



**SIMON UNANUE,  
10 URTE**



**SAQLAIN WARIS,  
9 URTE**





## AMAÑA

Amaña Herri Ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleok sexualitateari buruzko tailerra izan dugu orain dela gutxi. Asko ikasi dugu gai ezberdinen inguruan: harremanak, identitatea, gorputza, orientazioa eta pertsonalitatea, LGTBI kolektiboa zer den... Oso gustora egon gara, oso ondo pasatu dugu eta gauza asko asko ikasi ditugu.



## URKIZU



Otsailaren 24an Eguzen Zuri ospatu genuen eskolan. Aurtengo gaia “Gure Zirkoa” zenez pailazo, aurkezle, trapezista etab. ikusi ahal izan genituen eskolan. Jolastokian jaialdia izan genuen eta Urkizuko Guraso Elkarteak txokolatea prestatu zuen bizkotxoekin jateko eta ikasleen artean banatu zuen. Eskerririk asko urtero egiten duzuen lanagatik! Amaitzeko, Martxoaren 1ean Xabier Olaso idazlearen bisita jaso genuen, “Iker ikerlariaren iratzargailua” liburuaren inguruan solasalditxo bat egitera etorri zen eta. Oso saio interesgarria izan zen eta asko disfrutatu zuten ume guztiak.

## ARRATEKO ANDRA MARI

Aspaldiko partez, otsailaren 24an, Aratosteak ospatu genituen, eta gure eskola kolorez jantzi genuen. Zelako dantzari apartak eta trebeak ditugun eskolan!!!! Bestalde, buru-belarri ari dira gure ikasleak irratsaio borobilak prestatzen, zein baino zein politagoak!!! A zer nolako kazetariak ditugun!! Martxoaren 8ari begira ere hainbat ekintza antolatu genituen. 5. eta 6. mailako ikasleek, esaterako, Tinko zinema euskeraz programan hartu zuten parte eta Coliseoan izan ziren “TESS eta NI” deituriko filma ikusten.





## LA SALLE

Otsaila motza izan arren ekintza ugari eta martxosoak izan ditugu: LH1ekoak Topic txotxongiloen museora joan ziren, Tolosara, txotxongiloak nola egiten diren ikusi eta ikastera. Ondoren aratosteak prestatzen hasi ginen kolore kolore erritmoarekin. Aurten hippys mozorrotu dugu eskola eta nahiz eta ikastetxean bertan ospatu, giro paregabea izan genuen gure mozorro koloretsuekin. Inauterieri bukaera emateko, haur hezkuntzako ikasleek eskolan egindako mozorroekin joan ziren etxera eta LHko batzuk haiek margotutako karetekin ere bai. Gora inauteriak!!



## ALDATZE

Eguen Zuri arratsaldean Aldatzeko LH 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleek talde txikietan edo binaka kolore guztietako maskarak apaindu zituzten. Lehiaketa giro atseginetan ospatu zuten eta oso lan polita egin zuten guztien artean. 4 sari zeuden jokoan: Maskara nagusia, landuena, originalena eta birziklatuena. Orain korridoreko hormak kolorez jantzita daude maskarekin. Zorionak eta eskerrik asko parte-hartzaile guztiei!

## SAN ANDRES

Joan den otsailaren 11n "Emakume eta neska zientzilaria egunean" 4. eta 3. mailako ikasleek Miren Atristain Vega biologoaren bisita izan zuten. Urteetako lanaren ondoren, lortutako emaitza esanguratsuek errekonozimendua izan dute zientziaren munduan eta IkerGazteren azken edizioako saria jaso zuten. Guk bai zorrea, horrelako bisita bat jaso dugulako! Eskerrik asko, Miren!



## J. A. MOGEL

Juan Antonio Mogel Ikastolako 3. mailako ikasleek irteera polita egin dute. Urdaibai Bird Center bisitatu dute. Naturaren museo bizia da eta aukera ematen du hegaztiez eta haien migrazioaz gozatzeko. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dago. Izugarri ondo pasatzearekin batera, hegaztiei buruzko informazio asko jaso zuten. A nolako zorrea!!! Horrez gainera, aratosteetan koko-marruen bisita mundiala izan genuen Iturburun. Ze ondo pasatu genuen haiekin ere!





San Andres

La Salle





J.A. Mogel



Amaña





Aldatze

Urkizu

# Primerako bideoak aurkeztu dituzte herriko gaztetxoek

PARTE HARTZAILE GUZTIEN  
BIDEOAK IKUSTEKO



MOZORRO KATEGORIAKO  
IRABAZLEAK:  
June Larreategi, Jone Gerrikagoitia,  
Malen Anderéz eta Maddalen Arrazola



KOREOGRAFIA KATEGORIAKO  
IRABAZLEAK: Lorea Ugarte, June Mata,  
Intza Salaberria, Elene Astigarraga, Itsaso  
Eraso. Taldekide bat falta zen  
(Leire Larrañaga).



INTERPRETAZIO KATEGORIAKO  
IRABAZLEAK: Haizea Muruamendaraz,  
Noa Agirre, June Amuategi, Nora Ortueta,  
Ane Urkola (grabazioa egin zuena),  
Maule Bernedo eta Ane Arritokieta.



## Mari Jose Cid:

# «Argindarra izan da asmakizunik onena, bizitza erraztu digu»

Oraingo honetan La Salle ikastetxeko amonailobak elkartu ditugu ... eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan: Irati Errekalde La Salleko ikaslea eta haren amama Mari Jose Cid. Galizian jaio zen Mari Jose, Ourenseko herrirka batean, baina txiki-txikia zela etorri zen Eibarrera bizitzera. Elkarrizketa polita egin dio Iratik amamari.

### - Kaixo amama, noiz eta non jaio zinen?

Froufe izeneko herri txiki-txiki batean, Ourenseko probintzian, 1954. urtean.

### - Eskolan ez zenuten izango ez ordenagailurik ez Internetik...

Ez, ez, baina oso ondo moldatzen ginen. Dena egiten genuen eskuz, baita kalkulua ere, ez baitzegoen kalkulagailurik. Eta zerbaiti buruzko informazioa behar genuenean hiztegi edo entziklopedietara jotzen genuen.

### - Zelan gogoratzen duzu eskolako sasoia?

Oso oroitzapen onak ditut, oso zoriontsu izan nintzen. "Nuestra señora de Begoña" ikastetxean ikasi nuen umetan, eta gero, gaztetan, akademia komertzialean. 14 urterekin hasi nintzen lanean.

### - Non eta zertara jolasten zenuten?

la egun osoa ematen genuen kanean, jolasten. Harrapaketetara, indioetara, txapetara, foballera... Askoz ere auto gutxiago zegoen orduan eta lasaiago jolasten genuen. Kotxe bat zetorrenean... "Kontuuuz!! Kotxeaaaa!!!" oihukatu, baztertu eta kotxea pasatakoan berriro jolasera! Baserri batera ere joaten ginen, hango baserriarrek gereziak batzen lagatzen zigun-eta.



### - Nora joaten zineten oporretara?

Froufera. Hura da familiaren herria. Oso uda politak pasatzen genituen, lehengusu/lehengusiña guztiak elkarrekin, ibaian bainatzen, behiak mendira eramaten...

### - Kotxerik gabe nola moldatzen zineten?

12 bat urte izango nituen etxean lehenengo

**"Kotxe bat zetorrenean...**

**Kontuuuz!! Kotxeaaaa!!!**

**oihukatu, baztertu eta kotxea pasatakoan berriro jolasera!"**



Lagunekin Arraten.



Donostian, senarrarekin eta bi semeekin.

kotxea izan genuenean. Ordura arte, autobu-  
sez joaten ginen. Untzagatik pilla bat autobus  
irteten ziren, Zamorara, Galiziara... 12 bat ordu  
behar izaten genituen Froufetik bi kilometrora  
dagoen herrira ailegatzeko. Gero, han, amama  
egoten zen gure zain, astoarekin, maletak era-  
mateko.

#### - Noiz izan zenuten etxean lehenengo telebista?

Umea nintzela erosi zuten gurasoek lehenengo  
telebista, zuri-beltzean. Ordura arte, bizilagun ba-  
tek zuen eta haren etxera joaten ginen ikustera.  
Ama zoratu egin nuen ia, telebistako iragarkien  
abesti guztiak abesten nizkion behin eta berriro...  
Azkenean ez dakit isiltzearren izan zen edo zer  
baina etxerako ere erosi genuen telebista.

#### - Zein izan da zure ustez asmakizunik onena?

Duda barik argindarra. Iraultza izan zen. Asko  
erraztu digu bititza.

#### - Zertan aldatu da Eibar txikia zinenetik?

Esango nuke pertsonen arteko harremanak al-  
datu direla gehien. Lehen, pentsa, herriko punta  
batekoak eta bestekoak ezagunak ginen. Ipurua-  
koak eta Jardinetakoak elkar ezagutzen genuen,

eta borroketan ibiltzen ginen, brometan, ume-  
jolasak ziren. Orain aldameneko bizilaguna zein  
den ere justu-justu dakigu.

#### - Genero berdintasunean aurreratu dugu zeo- zer?

Zeozer aurretiko dugu, jakina. Egia da nik etxean  
ez dudala alde haundirik igarri. Senarrak, esate-  
rako, bi semeen karrotxoak bultzatu izan ditu  
harro-harro. Sasoi hartan ez zen ohikoa. Lanera  
etortzen zitzaidan bila, karrotxoarekin, eta aten-  
tzioa ematen zion jendeari. Lan kontuetan zeo-  
zer aurreratu dugu. Nire lantokian, tailerrean,  
bi emakume besterik ez zeuden, eta administra-  
zioa, berriz, emakumez beteta zegoen.

#### - Nola bizi zenuten euskara sasoi hartan?

Nik oso gutxi dakit baina senarra euskalduna da.  
Hark kontaktzen zuen eskolan ez ziotela euske-  
raz berba egiten uzten, eta orduan, gurasoak  
beste hiru seme-alabekin gaztelaraz egiten hasi  
ziren etxean, eskolara gaztelera jakinda joan  
zitezten. Bestela zigorra jasoko zuten. Pentsa,  
senarrak ezkerreko eskuarekin idazten zuen,  
ba eskua lotu egiten zioten eskumarekin idatzi  
zezan. Eskerrak gauzak asko aldatu diren!



# Amonaren xerra beteak

ZENBATENTZAT: 2-3 laguentzat

DENBORA: 40 min

## OSAGIAK:

- Kilo erdi bat xerra fin moztuak
- 200 g txerri-haragi pikatu
- Gatza
- Piperrautsa
- Baratxuria
- Perrexila
- Irina
- Arrautza bat
- Ogi birrindua



## NOLA EGIN:

- 1.- Prestatu 200 g txerri-haragi pikatu, bota gatza, piperrautsa, baratxuria eta perrexila.
- 2.- Bete xerrak nahasketa horrekin.
- 3.- Ondoren, pasa irin, arrautza eta ogi birrindutik.
- 4.- Frijitu.

Piperrekin, entsaladarekin edo patata frijituekin zerbitzatu, edo pasta pixka batekin plater konbinatu ederra!



## TXINTXETAK ETA ARRAUTZAK: ERRAZ ZURITZEKO MODUA

Zenbat aldiz gertatu zaigu arrautzak egosi eta zuritzen hasterakoan... a ze desastrea! Trikimailu honekin errazago egingo zaizue. Adi. Hartu arrautza egosten hasi aurretik eta sartuiozue txintxeta bat alde biribilduan. Horrela presioa arinduko dugu eta arrautza ez da oskolera itsatsiko. Ikusiko duzue zein erraz zurituko duzuen orain.

TI-TA



## HIZKI-ZOPA

- ERLOJUA
- PAPELA
- BON BILA
- BORRAGOMA
- PELOTA
- BALOIA
- LEIHOA
- ZUHATZA
- KAMISETA
- BOLIGRAFON

B	C	I	J	O	Q	X	B	L	B	O	K	Y	B	K	K
A	K	K	O	L	K	Q	L	O	X	U	L	K	O	M	A
L	M	Z	U	T	L	E	R	L	N	K	Q	U	L	N	M
O	N	S	T	R	B	R	Q	X	H	B	N	J	I	T	I
I	O	G	I	A	A	K	K	Z	D	O	I	K	G	C	S
A	L	H	J	G	I	A	Y	U	N	X	M	L	R	Q	E
D	B	E	O	I	A	O	L	H	M	N	K	Q	A	N	T
U	L	M	K	S	I	D	S	A	C	X	D	N	F	M	A
O	A	F	U	O	D	P	Z	I	Q	J	A	Y	O	Z	K
B	Q	G	F	Z	Q	A	X	T	L	U	D	L	A	G	S
F	T	N	M	E	U	P	L	Z	O	S	B	E	K	H	O
A	N	H	Q	J	A	E	L	A	X	I	L	I	H	O	I
L	O	R	O	U	E	L	O	B	I	A	A	H	O	O	I

## LABIRINTOA






# LETRA-ZOPA

ANIMALIAK HERRALDEAK ETA FRUTAK	C	H	I	M	P	A	N	Z	E	A	L	S	Chimpanzei
	O	B	V	K	U	U	R	A	N	I	A	E	Kokoa
	C	V	K	V	W	H	K	R	A	B	V	Z	KiwiA
	O	C	X	H	J	G	P	I	U	A	M	A	Gorila
	A	i	E	T	N	A	R	F	W	A	N	W	Frantzia
	X	T	X	A	U	R	R	A	I	L	V	Ukraina	
	W	O	A	G	O	R	I	L	A	A	A	X	Macedonia
	M	A	C	E	O	N	I	A	J	L	N	Pina	
	K	O	K	O	A	S	T	R	B	V	I	E	Trakurra

## 5 DESBERDINTASUN







# 5 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **MAIATZAK 4** baino lehen  
 ...eta kitto! Euskara Elkarte- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



## AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa ROSA txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Ilerik izan nahi ez zuen katua 6 urtetik aurrera**

Nola izan daiteke zoriontsu ilerik ez duen katu bat? Gainera ooooooso ilet-sua da! Eta ileak galtzea beste aukerarik ez balu? Esaten erraza da, baina ez da hain erraza lortzen... Séverine de la Croixen, Anthony Signolen eta Pauline Rolanden eskutik, hona hemen ilea galdu nahi duen katu burugogorren istorio dibertigarria.

**Ata Pank eta Ate Punky 8 urtetik aurrera**

Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira. Lotsagabeak, ahozikinak eta tontorroi xamarrek. Haien gaiztakeriak irribarrez jarraituko ditu irakurle gazteak. Bi ahate bitxi! Bi harribitxi! Murgildu zaitezte orriotan eta une dibertigarriak eta ahaztezinak pasatuko ditugu.

**Berta Berezi 10 urtetik aurrera**

Bi nobedade ekarri zituen lehen eskola egunak. Batetik, Garbiñe tutoreak haurdun zegoela iragarri zuen. Bestetik, haren ondoan zegoen ikaskide berria aurkeztu zuen taldearen aurrean: "Ondoan dudan neska honek Berta izena du, eta gurekin egongo da hemendik aurrera. Ongi etorri gure taldera, Berta! Zerbait esan nahiko zenuke beste guztiok zu ezagutzen hasteko-edo?..."

**BITXIKERIAK**

*Katuek euren bizitzako %70 pasatzen dute lotan.*



*Hartz inurrijaleek 35.000 inurri jaten dituzte egunean!*

*Elefante batek balea urdinaren mingainak baino gutxiago pisatzen du.*





# Hartz motela

Bazen behin Pako izeneko hartz motel bat.

Pakok ez zeukan lagunik. Egun batean parkera joan zen. Han beste mota batzuetako animaliak zeuden: txakurra, katua, azeria eta beste batzuk lasterketa bat egiten ari ziren.



Pako triste zegoen oso motela zelako eta ezin zuelako lasterketan parte hartu.

Azeria beregana joan zen eta esan zion:

- Zer gertatzen zaizu, Pako?

Eta Pakok esan zion:

- Ba, oso motela naiz eta ez dut lagunik.

Azeriak erantzun zion:

- Ba orain jada badaukazu lagun bat.

- Nor da nire laguna? - esan zuen Pakok.

- Ni, ni izango naiz zure laguna, eta besteek ere ziur nago zure lagunak izan nahiko dutela.

- Benetan?

- Bai.

- Eskerrik asko zure laguntzagatik.

- Ez horregatik.

Pakok asko entrenatu zuen eta orain lasterketetan oso azkarra da. Lasterketa asko irabazten ditu eta horrela lortu du bere ametsa betetzea.

Awa Balla

# ZU BAI MARGOLARI!

